

# XXXVI. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

## Ereintza Elkarteko Eskulangintza Taldea

### SARRERA

Urtero bezala, Errenteriako Euskal Herriko XXXVI. Eskulangintza Azokaren berri ematera gatoz OARSO aldizkari honen orrien bitartez. Azoka, maiatzaren 1etik 4ra bitartean egin da; hau da, ostegunetik igande iluntzeraino eta, ohi bezala, Merkatuzar Kultur Guneko "Jose Luis Caso Aretoa" ukan du kokaleku. Ereintza Elkarreak antolatzen duen azokak, azken urte hauetan hasitako hobekuntzaren ildoari jarraituz, berrikuntza nabarmenak abian jarri nahi izan ditu aurtengo ekitaldian ere. Izan ere, gure hiriarentzat eta artisautzaren etorkizunarentzat garrantzitsua den ARTIOLA Artisautzaren Gunea proiektuaren sortzaileetako bat garenez, honen oinarriak eta norabidea islatu nahi genituzke gure ekimen guztietan.

Bai Azokak bai ARTIOLA proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Saila) eta Errenteriako Udalaren babesa eta laguntza dute.

### AURTENGO BERRIKUNTZAK

Artisautza mundua etengabeko aldaketa batean murgilduta dago azken urte hauetan. Lehengo zenbait lanbide tradizional, edo hobeto esanda zenbait produktu tradizional, ia erabat desagertu dira eguneroko merkatutik. Baina, lanbide horien teknikak bizirik dira eta, teknika horiek erabiliz, artisauak gaurko gizartearen gusto eta beharretara egokitutako produktu berriak sortzeko aukera dute.

Orain arte artisaua, bakarkako lan baten bitartez egilea izatez gain, bere produktuaren



Te poltsekin egindako soinekoa.

asmatzaile eta diseinatzailea izan da askotan. Egun, ordea, artisautzak behar-beharrezkoa du bere lan-esparrua zabaltzea eta bere inguruan dauden beste zenbait lanbiderekin (diseinugileak, Arte Ederretako jendea, arkitektoak...) elkarlanean aritzea. Zentzu honetan bi ekimen antolatu dira azokaren egunen barruan: Kunsthal diseinu-eskolarekin lankidetzeta eta Sormen eta Berrikuntzako diziplina anitzeko tailerrak.

### KUNSTHAL DISEINU-ESKOLAREKIN LANKIDETZA

ARTIOLA Artisautzaren Gunearekin lankidetzan, azokan gurekin izan ditugu KUNSTHAL Irungo diseinu-eskolako irakasleak eta azken ikastaroko ikasleak, beren ezagutza eta esperientzia artisau parte-hartzaileei eskaintzen. Jarduera honen xedea artisautzaren pareko beste diziplina batzuekin elkarlanerako sinergiak ezartzea izan da, artisautzaren lehiakortasuna hobetze aldera. Beste helburu bat azokan bertan edo epe laburrean sektorearen garapen profesionalerako harreman egokiak sortzea izan da.

Diseinugileen eta artisauen arteko elkarlana sustatzea eta lankidetzeta horretatik artisautzari beste hedadura bat emango dioten ideiak ateratzea lortu nahi izan dugu. Bi profesional taldeen

artean egindako lana ikusgai egon da propio jarrিতako paneletan, non egunez egun erakutsi diren bien arteko harremanen emaitzak.

Proposamen honen ondorioa guztiz baikorra gertatu da, bai artisautzat eta bai eskola berarentzat ere. Haien hitzetan, bien arteko zuzeneko harreman horrek arlo ezberdinetan elkarrekin lan egiteko bide berriak ireki ditu. Bi sektoreek zeinek bere lanaren ezagutza eman du eta besteena jaso, eta, ondorioz, emaitza batzuk gauzatu dira; hala nola enbalatze, stand, aurkezpen-txartelak, erakuslehiak eta produktuen hobekuntza edo berrien diseinua. Hemendik aurrera halako harremanak artisautzan, ohiko jardunak izatea espero dugu.

Bestalde, Kunsthal eskolarekiko lankidetzaz azokaren estetikan islatuta geratu da. Izan ere, azokaren sarrera eszenaratze berritzaile batez guztiz aldatuta ikusteko aukera izan dugu.

## SORMEN ETA BERRIKUNTZAKO DIZIPLINA ANITZEKO TAILERRAK

Ereintzak, sortzailekide duen ARTIOLA proiektuaren espiritu berritzailearen haritik, Errenteriako Euskal Herriko Eskulangintza Azoka espazio paregabea dela uste du ekimen berrien bitartez, artisautza profesionalizatzeko, garatzeko eta lehiakor bilakatzeko; baita sektorean dagoeneko abian diren beste ekimen batzuk ezagutzera emateko ere.

Testuinguru horretan kokatu behar dira "sormen eta berrikuntzako diziplina anitzeko tailerrak". Horien xedea izan da eskulangintzako zenbait diziplinaren arteko elkarlana sustatzea harreman eta sinergia profesionalak sortze aldera, eta hauen bitartez, azken finean, artisau produktuaren "berrikuntza" lortzea. Emaitza, eskulangintza bizia da, garaikidea eta kalitatezkoa, "lankidetzaz" eta



Beira eta taila tailerra.

“ikerketa” oinarrizko tresnatzat erabiltzen dituen bai diseinuan bai exekuzioan; honela, produktua- ren garapen-faseetan berrikuntza bermatzen da.

Diziplina arteko lankidetzan horren adibide gisa, azokan elkarrekin lan egin duten zenbait artisauren lana ikusteko aukera izan dugu, horretarako propio prestatutako gunen batean. Elkarrekin lan egin dutenak hauek izan dira: Igor Obeso beira-puztutzailea eta Gotzon Huegun eskultore eta zizelkaria, Nuria Conesa feltrogilea eta margolari bat, Tytti Thusberg ehungile eta atrezzoarako proiektugilea eta Jose Pablo Arriaga artisau polifazetiko eta eszenografoa. Aipatzekoa da azken bi hauen performancea eta aurkeztutako te poltsekin, argazkien negatiboekin, ebakuntza-gelako mozo- rroekin edo emakumeen galtzerdiekin egindako soinekoak.

Axun Gabarain beiragileak, haurrei begira batik batik, antolatutako mosaikoak egiteko taile- rrean haur-andana ibili zen.

## ARTISAU PARTE-HARTZAILEAK, LAN- GINTZAK ETA JATORRI GEOGRAFIKOAK

Aurtengo azokan 44 artisau lantegik parte hartu dute, eta horietako 16 lehenbiziko aldiz etorri dira azokara; beraz, parte-hartzaile guztien % 38 berriak izan dira. Nabarmenezkoa da 2013. urteko edizioan parte hartu zuten tailer guztietatik 10ek bakarrik errepikatu dutela aurten, eta horrek adierazten du berrikuntza eta txandakatze aipa- garriak izan direla artisau eta langintzen artean. Alderdi horri dagokionez, esan beharra dago urtez urte ahalegin berezia egiten dela partaide berriak ekartzeko eta kalitatezko produktu berriak aurkezteko.

Gipuzkoako artisauei lehentasuna eman arren, lurraldeen arteko oreka mantendu da, eta, betiko legez, Euskal Herri osoko artisautza sekto- rearen ordezkari zabalak ikusteko aukera izan da. Gurekin izan ditugun 44 tailerren jatorria hau izan da: Gipuzkoa (19), Bizkaia (7), Nafarroa (5), Araba (5), Iparralde (4), Estatuko beste komunitate batzuk (4).

Eta erabilitako materialei dagokienez, hauek izan ditugu ikusgai:

**Zura (9):** makilak (1); eskultura, taila eta altzariak (3); paletekin egindako altzariak (1); jos- tailuak (1); torneatuak (1); olibondo- zko tresneria (1); apaingarri-gauzakiak (1).

**Burdina eta metala (7):** zenbait bitxigintza (4); forjaketa artistikoa (1); esmalteak eta metal- gintza (1); dekorazio-gaiak (1).

**Beira (5):** beira puztua eta bitxiak (2); “fussing” teknikaz egindako bitxiak (1); dekorazio- gaiak (1); diseinua beiran (1).

**Buztina (4):** zeramika garaikidea (1); mosaikoak (1); zeramika modelatua (1); muralak (1).

**Ehuna (6):** euskal ehungintza eta jantziak (2); soineko margotuak (1); burukoak eta bitxigintza (1); zeta margotua (1); feltro- gintza (1).

**Larrua (3)** pilotak (1); larrugintza (2).

**Papera eta kartoia (4):** koadernaketa (1); kartoizko buruhandiak eta panpinak (1); kartoizko altzariak (1); grabatuak eta estampa (1).

**Bestelakoak (6):** surfeko oholak (1); xaboi natura- lak (1); erretxinazko irudiak (1); apaingarriak eta bitxiak orean (2); lore prentsaturako kua- droak (1).

## NABARMENTZEKO ARTISAU BATZUK

Aipatu denez, 44 artisautza-tailer izan dira aurten. Azokaren kalitatearen ezaugarri bezala azpimarratu behar da parte-hartzaileen artean zenbaitek nazioko eta nazioarteko lehiaketetan sariak jaso dituztela.

Gotzon Huegun: eskultore eta zizelkaria, Errenteriako Udalak Xenpelar bertsolariari eskul- tura egiteko deitutako lehiaketa irabazlea; Suitzako Morges herriko IX. Sinposiuneko lehengo saria zura zizelketan; Madrilgo Beirazko Pabilioan erakusketa ere egina du.

Jose Pablo Arriaga: altzarien zizelkatze tra- dizionaletik eskulturara, diseinura eta eszenogra- fiara pasatu da. Sari ugarien irabazlea (Castilla-La

Mancha Kutxaren saria, Puebla de la Sierrako Nazioarteko Eskultura Bienaleko 2. saria, Erresuma Batuako Diseinuko Lehiaketa Nazionaleko 2. saria, Florentziako Bienalean parte hartzeko aukeratua), erakusketak egin ditu, besteak beste, Eskozia, Ingalaterran eta Madrilan. Interiorista bezala Arantza herrian ireki berria den hotel baten deko-razio-proiektua aipatu behar da.

Iñaki Unanue: forjari artistikoa, Majadahonda herriko Arte Plastikoen XIV. lehiaketako irabazlea; Sormenezko Artisautzaren XIV. Cajastur sariaren irabazlea; Madrilgo Valle de los Sueños VI. Eskultura Bienalean Brontzezko domina; Bilboko azokan artisauproduktuaren kalitateari saria; Burgos eta Orihuelako Pieza Bakarraren Lehiaketarako aukeratua.

Nuria Conesa (Nuna): izen handiko fel-trogilea eta ehunen diseinugilea; Parisen eta Herbheretan erakusketak egin ditu eta mundu guztiko 140 aukeratutako artisauekin Omanen (Arabia) egona da; atzerrian ere saltzen ditu bere produktuak eta Blas Arratibel saria eta Artisautzaren Sari Nazionala irabazi ditu.

Maite Marco (Lamai): marrazkilari eta margolaria bere hastapenetan, bere pinturak pape-retik "hegan" egin zuten erretxinazko orean egindako eraztunak, paparrekoak edo belarri-tako bihurtzeraino. Bere produktuak atzerrian ere saltzen ditu eta Artisautzaren Sari Nazionaleko finalista izan da.

Sonia Sanz (Tulaytelmo), Arte plastikora eta diseinuko lanetara emana, bere jantziak eta soinekoak eskuz margotutako pieza bakarrak dira. Margolaria eta kartelgilea ere bada. Irabazitako sarien artean Blas Arratibel Sorkuntza Berriko saria eta Gasteizko "Muralia" horma-irudien lehiaketako sariak daude.

## INAUGURAZIOA

Azokaren irekiera ofiziala maiatzaren 1ean izan zen, ostegunean, eguerdiko 12:00etan. Leire Otaegi Ereintza Elkarteko lehendakariaren ongi-etorriaren ondotik, Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismoko Sailaren ordezkariak, Oscar Usetxi jaunak, Foru Aldundiak

artisautzari eskaintzen dion laguntza eta garrantzia azpimarratu zuen. Azkenik, Errenteriako alkateak, Julen Mendoza jaunak, Udalak azokarekin eta Artiolarekin duen konpromisoa adierazi zuen eta denei eskerrak emanez irekitzat eman zuen azoka.

## I. KARTEL LEHIAKETA

Orain arte, azoka iragarri eta sustatu behar zuen kartelak diseinugile profesionalen eskuetan utzi izan da beti. Aurten, berriz, eta saio bat bezala, Ereintzak I. Kartel Lehiaketa antolatzeko erabakia hartu du, kartel irabazlearen bidez azokaren berri emateko. Emaizta interesgarria gertatu da, bai aurkeztu diren kartelen kopuruarengatik eta bai aukeratutako kartel irabazleak izan duen harrera onarengatik. Irabazlea Aitor Hernández Ruesga izan da "Zuhaitza" deritzan kartelarekin eta 600 euroko saria eman zitzaion inaugurazio ekitaldiaren barruan. Diseinugile hau Arte Ederretan lizentziaduna da eta publizitate enpre-tan lana egiten du.



Kartel Lehiaketaren irabazlea.

## AZOKAKO SARIAK

Azken urteetan legez, Errenteriako Euskal Herriko Eskulangintza azokak bi sari banatu ditu artisau partaideen artean: Artisau-produktuaren Kalitatearen Saria eta Stand Onenaren Saria. Bi sari horien helburua honako hau da: artisauek ahalegin berezia egitea kalitatezko produktuak sortzeko eta produktu horiek ahalik eta hobekien aurkezteko.

### **Artisau-produktuaren Kalitatearen Saria:**

Azokan aurkeztutako pieza onena jasotzen du sari honek, parametro hauek kontuan hartzen dituela:

- Ikerketa eta esperimentazioa, bai materialetan, bai ekoizpen tekniketan.
- Diseinua eta estiloen berritasuna, erabilgarritasuna.
- Kalitate artistikoa.
- Produktuaren lanketa eta akaberaren finetasuna.

Saria 350 eurokoa eta diploma bat da. Epaimahaia hainbat arlotako profesionalak osatzen dute, eta aurtengo saria José Pablo Arriaga markinarrak jaso du berrikuntza tekniko egindako "Artxibo" deritzan zurezko kutxari esker. Bere hitzetan "sariak zure lana baloratzen dela erakusten du. Euskal eskulangintzatik gatoz, aitonak eta aitak kutxa tradizionalak egiten zituzten eta kutxa honetan eskultura tradizionala eta kontzeptuala nahastu ditut, altzari funtzional eta artistiko oso berria lortuz. Eboluzio honek altzariaren kontzeptu gaurkoagoa ekarri du, artisautza tradizionalaren muina mantenduz". Artisautzaren aldaketa beharra azpimarratzen du Arriagak ere, eta zentzu horretan Errenteriako azoka bide horretatik doala ikusten du, "zeren, aldaketa ezean, artisautza hil egingo baita".

Interesgarria da oso artisau-artista honen ibilbidea. Euskal eskulangintza tradizioaletik abiatuta arlo berriak jorratu ditu, bai artisautzaren arloan eta bai artegintzan ere. Azken honetan, irizpide argia duen ibilbidea egin du José Pablok: artearen eta naturaren arteko loturaren bila dabilzanen ibilbidea. Hau da, naturari buruz duen konzeptua eta sentimenduak eta naturarekin izan dituen bizipenak (bereziki Lekeitiotik Senegalera belaontzi batean egindako bidaiaren edo Kasai ibaiaren barrena bititutakoak), txertatu ditu bere obretan.



Produktuaren kalitatearen saria.

**Stand Onenaren Saria:** Stand onena osatzen duen artisauari ematen zaio sari hau eta aurkezpena eta kalitate estetikoa hartzen dira aintzat. Saltokia atontzeko norik bere lehengaiak, amaitutako produktuak edota lanketa fasean dauden produktuak erabili beharko ditu artisauek.

Sari gisa 250 euro eta diploma jasotzen ditu irabazleak, eta dekorazioan nahiz erakusleihen dekorazioan espezialista diren profesionalak osatzen dute epaimahaia. Aurtengo saridunak Isabel eta María Elorriaga, bi ahizpa bilbotarren "Matxi Glass Design" deritzan saltokia izan da. Matxi Glass Design tailerra 2005. urtean jaiotzen zen bi ahizpen sena eta artearen bateratzearekin: diseinuaren azken joerak bitxigintzaren kontzeptu berritzaile batekin nahastuz eta betiko materialak, beira eta zilarra, erabiliz. Tailerraren oinarria kalitatezko piezak sortzea da, gaurko ikuspuntu berri eta kolorista batekin, non bilduma bakoitzak originaltasuna eta xarma lortzen duen. Bitxiak eskuz eta maitasunez banan-banan eginak dira eta erabiltzen duten beira kalitate handikoa denez, lanaren xehetasuna indartzea lortzen dute.

Bi sari hauek azokan bertan banatu ziren maiatzaren 2an, ostiral arratsaldean, eta haien berri komunikabide guztiei eman zitzaizkien, irabazlearen aipamen labur batekin.



Stand onenaren saria.



Larrugintza.



Kartoizko altzariak.



Jostailuak.



Euskal ehungintza.

## AZKEN HITZA

Etorkizunari begira Errenteriako azoka honek Artiola Artisautzaren Gunearen ekimenen barruan geratzeko asmoa du eta haren oinarri eta irizpideen bidez antolatuta. Beraz, oraingo ildo berritzailea jarraituz eta areagotuz, azoka bereziak, "bikaintasunaren azoka", hain zuzen, izan beharko du; Euskal Herrian egiten diren beste azoketatik puntu bat gorago egongo dena, bai antolakuntzaren aldetik eta bai bertan parte hartuko duten artisauengatik. Azken finean, salmenta lekua izateaz gain, erakustoki berezia izango dena, non ikerkuntza, abangoardia, goi mailako kalitatea..., hau da, gure artisautzaren lan onenen erakustokia izango dena.

\* \* \*

Ez genuke lerro hauek bukatu nahi aurten hil zaigun Antxon Aguirre Sorondo adiskidearen aipamen txiki bat egin gabe. Aspalditik genuen eza-guna eta beti prest agertu zitzaigun artisautzaren inguruko lanetan bere laguntza eskatzen genion guztietan. Bereziki, azokaren 25. edizioa zela eta antolatutako egitarau berezian izan zuen parte hartzea, non bere anai Juanekin batera Artisauen Katalogo Orokorra egin zigun. *Euskonews* web orrietan ere ikus daiteke Euskal Herriko artisautzaren inguruan berak egindako lan eskerga. Ereintza Elkartearen izenean eskerrik asko, Antxon!

Egin berri dugun XXXVI. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka egitea ahalbidetu duten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik, parte hartu duten artisauguztietan, aurtengo Azokari kalitate eta berrikuntza nabarmena eman diotelako. Eskerrak, baita, urtez urte azokara hurbiltzen diren bisitariei ere, lana eta arduraren eskaini diguten komunikabideei, eta, nola ez, babesa eman diguten erakundeek: Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Errenteriako Udalari. Bihoakie, berriro, guztiei, gure eskerrik beroena. Lanean jarraituko dugu Errenteriako azokak, etorkizunean ere, aitzindari izaten jarrai dezan ahaleginetan.

# ERESBIL 2013

Jon Bagüés

Fonoteca de Herri Irratia en proceso de ordenación.

## Ingresas el cuarto archivo sonoro de radio: Herri Irratia en Eresbil

Eresbil cuenta entre sus fondos con tres colecciones sonoras procedentes de radios: la colección de discos de la fonoteca antigua de Radio San Sebastián, ingresada en 1995, que cuenta con 5.061 discos de larga duración y 21.027 singles; la colección de discos de la fonoteca de Radio Nacional de España, emisora de San Sebastián ingresada en 1998, que cuenta con 35.517 discos (158 discos de pizarra de 78 rpm, 7.812 discos de vinilo de 33 rpm, 27.410 discos singles de vinilo y 128 discos compactos); y la colección de 2.490 discos de 33 rpm de música clásica cedida por Euskadi Irratia en 2004. En junio de 2013, el equipo técnico de Eresbil recogía de la calle Garibay, con el permiso de Noticias Irratia (actual propietaria tras la absorción en 2010 de las emisoras Herri Irratia) la colección de materiales primordialmente comerciales en CD, discos de vinilo de 33 rpm y de 45 rpm y casetes pertenecientes a la popular radio gipuzkoana. Contiene asimismo la colección de mini-disc presumiblemente con grabaciones de programas y cuñas de publicidad. Y decimos presumiblemente porque ante el tamaño de la colección (más de 23.000 grabaciones sonoras), todavía estamos en la fase de ordenación de los materiales. Estimamos que

la mayoría de los discos están publicados entre 1961 y 2010. La parte sonora de producción propia fue vendida a la Diputación Foral de Gipuzkoa y actualmente está en proceso de tratamiento en la biblioteca del KM. Se trata por lo tanto de 50 años de música comercial, que una vez ordenada, clasificada y catalogada, estará a disposición de la ciudadanía.

## Tres nuevos fondos documentales para Eresbil

En junio del pasado año 2013 recogíamos, a petición del responsable de la editorial, Aita Ignace Etchehandy, toda la colección de partituras de música religiosa que se editaron en la colección Ezkila, auspiciada por los benedictinos de la abadía de Belloc (Urt), para responder a las necesidades de la música litúrgica en euskera del Concilio Vaticano II. Más de 1.100 partituras, fundamentalmente corales, que están a partir de ahora a disposición de todo el público.

El mes de septiembre, la orden claretiana depositó en Eresbil el fondo de partituras creadas por el claretiano Ruperto Iruarrizaga, nacido en Yurre (Igorre), en 1908 y procedente de Bilbao. Escribió un buen número de obras corales, pero

el material ingresado contiene también partituras sinfónicas.

En octubre, y procedente de Hondarribia, la familia Zabala, originaria de Tolosa, depositaba en Eresbil la colección de partituras impresas del siglo XIX que conservaba la familia, una colección que sin duda completará las partituras que tiene ya el archivo.

Además de los citados tres nuevos fondos, ingresaron también en el año 2013 nuevos materiales de personalidades que ya tenían inicialmente su fondo en Eresbil. Así en enero ingresan nuevos materiales del organista Manuel Zubillaga, procedentes de Hernani; en mayo llegan de Bilbao nuevos materiales del crítico y acordeonista José Urquijo; en septiembre se recogen de Donostia discos y nuevos materiales relacionados con la actividad de gestión musical de Imanol Olaizola; y finalmente en noviembre ingresó la biblioteca musical y documental del compositor, organista, y difusor de la jota navarra José Menéndez; anteriormente teníamos sus partituras originales, pero se añade a ello ahora su rica biblioteca musical.

En resumen, un año especialmente rico en nuevos ingresos para Eresbil.

### **Una monografía inaugura las publicaciones electrónicas de Eresbil**


Eresbil inició su andadura en la promoción electrónica de publicaciones relacionadas con la música vasca con la edición del catálogo razonado de la obra musical de Francisco Escudero realizado por la musicóloga profesora de Musikene Itziar Larrinaga. Contiene la explicación detallada de todas las obras creadas por el compositor con indicación de la ubicación de manuscritos e impresos, así como la existencia de grabaciones. La publicación está puesta on-line de manera gratuita en la dirección:

<http://www.Eresbil.com/web/escudero>

[presentacion.aspx](#)

### **¿Qué tenemos en Eresbil?**

En el cuadro adjunto indicamos los documentos que han ingresado en el archivo durante el año 2013, tanto por compra como por cesión en depósito o donación. En la columna de la derecha se indican las cifras totales de los documentos que a 31 de diciembre de 2013 están inventariados en las bases de datos informatizadas y son accesibles en Eresbil. Los números no reflejan en realidad el volumen de todos los documentos que están en Eresbil. Hay, por ejemplo, en la documentación de carácter personal, fichas que engloban en realidad más de un documento.



Publicación del primer número de la monografía on line de la serie "Eresbil Katalogoak"



	INGRESO	GUZTIRA
	2013	Eresbil TOTAL
<i>PARTITURAS / PARTITURAK</i>	<b>3.667</b>	<b>79.222</b>
– Manuscritos / Eskuizkribuak	<b>395</b>	<b>16.820</b>
– Impresos / Inprimakiak	<b>1.747</b>	<b>48.491</b>
– Multicopias / Multikopiak	<b>1.525</b>	<b>13.356</b>
– Microformas / Mikroformak	–	<b>51</b>
– Ficheros / Fitxeroak	–	<b>504</b>
<i>BIBLIOTECA / LIBURUTEGIA</i>	<b>201</b>	<b>18.012</b>
– Libros / Liburuak	<b>190</b>	<b>16.885</b>
– Revistas / Aldizkariak	<b>11</b>	<b>666</b>
– Microformas / Mikroformak	–	<b>458</b>
– Ficheros / Fitxeroak	–	<b>3</b>
<i>DOCUMENTACIÓN / DOKUMENTAZIOA</i>	<b>99</b>	<b>16.751</b>
– Doc. personal-histórica / Dok. pertsonal-historikoa	<b>7</b>	<b>6.694</b>
– Cartas / Gutunak	–	<b>2.644</b>
– Programas / Programak	<b>23</b>	<b>3.532</b>
– Carteles / Kartelak	<b>1</b>	<b>333</b>
– Fotografías / Argazkiak	<b>32</b>	<b>2.011</b>
– Grabados, iconografía / Grabatuak, ikonografia	<b>32</b>	<b>273</b>
– Otros / Beste batzuk	<b>4</b>	<b>1.264</b>
<i>SECCIÓN AUDIOVISUAL / IKUS ENTZUNEZKOEN SAILA</i>	<b>24.136</b>	<b>102.221</b>
– Cilindros de cera / Argizarizko zilindroak	–	<b>551</b>
– Discos / Diskoak 78 rpm	<b>15</b>	<b>2.992</b>
– Discos / Diskoak 45 rpm	<b>2.126</b>	<b>50.654</b>
– Discos / Diskoak 33 rpm	<b>3.752</b>	<b>27.912</b>
– Rollos de pianola / pianola-biribilkiak	–	<b>975</b>
– Carretes de cinta / Zinta-txirrikak	<b>5</b>	<b>483</b>
– Casetes / Kaseteak	<b>3</b>	<b>3.055</b>
– Discos compacto / Disko trinkoak	<b>17.543</b>	<b>14.248</b>
– Minidisc / Minidisc-ak	<b>637</b>	<b>16</b>
– DAT / DATaK	–	<b>201</b>
– CD-ROM / CD-ROMak	<b>5</b>	<b>209</b>
– Videos / Bideoak	<b>3</b>	<b>190</b>
– Laser-disc / Laser-diskak	–	<b>5</b>
– DVD / DVDak	<b>44</b>	<b>631</b>
– Materiales mixtos / Nahasiriko dokumentoak	<b>3</b>	<b>99</b>
<b>TOTAL / GUZTIRA</b>	<b>28.103</b>	<b>216.206</b>



Cartel anunciador del curso "Dantzazale" realizado en ERESBIL.



Disco remasterizado en ERESBIL.

## Investigaciones en Eresbil

La Beca de investigación Juan Zelaia Letamendi Musika Beka, patrocinada por Euskal Fundazioa, mantiene su apoyo al desarrollo del euskera en relación a la música. El pasado año 2013 se puso en marcha la convocatoria y adjudicación de la beca correspondiente a su sexta edición, resultando adjudicada al proyecto presentado por Nagore Tolosa e Iban Uribarri con el título:

"Azkue, musika eta hizkuntza"

El trabajo correspondiente a la quinta edición, con el título definitivo de "*Marokoar musika kulturaren transmisioa. Lea Artibai eta Deba Barrena ikastetxetako marokoar ikasleen kasua*", desarrollado por Eugen Bidegain, está ya disponible en la página web:

<http://www.Eresbil.com/zelaiamusikabeka/>

## Noticias de Eresbil y Errenteria en Cursos y Congresos

A lo largo del año 2013 Eresbil participó en el Taller Internacional sobre patrimonio musical celebrado en La Habana, en el Congreso Internacional de Bibliotecas Musicales celebrado en Viena, así como en las Jornadas de AEDOM celebradas en Granada.

Eresbil forma parte del Proyecto de Investigación I+D+i, *Música de Cámara instrumental y vocal en España en los Siglos XIX y XX: recuperación, recepción, análisis crítico y estudio comparativo del género en el contexto europeo*, liderado por el Dpto. de Historia y Ciencias de la Música de la Universidad de Granada. Participa asimismo en el proyecto de investigación "Desarrollos de algoritmos para la clasificación automática de la música", dirigida por el investigador Darrel Conklin de la EHU-UPV.

Además de esas colaboraciones, Eresbil prestó su ayuda para proyectos concretos. Participó en el proyecto de recuperación de las antiguas grabaciones del grupo navarro de jotas "Los Pajes", así como en la edición conmemorativa del 150 aniversario de la Banda de la Asociación de Cultura Musical de Errenteria.

Eresbil trabaja estrechamente con la Asociación de Compositores Vasco-Navarros en la puesta al día de todos los catálogos de los compositores actuales para su difusión a través de la página web de la Asociación.

Relacionado con la internacionalización, Eresbil es la administradora de la base de datos del proyecto internacional AMA (Access to Music Archives) de registro de archivos musicales a nivel del estado español, en el marco del trabajo colectivo de la Asociación Española de Documentación Musical y el ámbito internacional de la AIBM. Asistió también en Madrid a unas Jornadas especiales dedicadas al patrimonio musical de la Iglesia española que propiciaron la colaboración de la Asociación de archiveros de la Iglesia con el proyecto AMA.

### La página web de Eresbil al día

La página WEB de Eresbil es, junto con las visitas al propio archivo, la principal vía de difusión de sus contenidos. El año 2013 recibió la

página web 100.284 visitantes procedentes de 50 países diferentes. Se realizaron 11 boletines mensuales con información de actividades musicales de Euskalerría así como novedades de partituras, libros y discos ingresados en el archivo. La página pone asimismo a disposición de los usuarios de la red el contenido de sus cuatro bases de datos:

• Partituras de compositores vascos	30.899
• Vaciado de artículos (Bibliografía Musical Vasca)	8.921
• Directorio de instituciones musicales de Euskal Herria	2.056
• Catálogo de partituras, libros y discos	60.750

Como de costumbre, concluimos este informe del año 2013 de Eresbil con la cordial invitación a todos cuantos deseen conocer más de Eresbil a visitarnos en:

**www.Eresbil.com**

